2015-X-30
Número **471.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

# EDITORIALA

## Martxan da

**Oinarriak sendotu behar dira, elkarren arteko plangintzak partekatu, helburuak ongi zehaztu eta hortik aurrera bultzada irmoa eman. Guzti hori ikusi da Bilbon pasa berria den Alternatiben Herriaren antolaketan. Atzetik ikaragarrizko antolakuntza lana ekarri duen muntaiak izugarri poztu du bertan bildutako jendetza. Izugarriak izan baitziren hitzaldietan parte hartu zuen jendetza, baita ekimen ezberdinetan eta auzo ezberdinak zeharkatzen ibili zen jende andana. Makina bolondresen lanaz gain –beti izango da aipatzekoa–, eguna borobila izan zedin bere ekarpena egin zuten eragile eta norbanakoei ere eskerrak ematekoa da.**

**Erakutsi dugu, bai, posible dela eredu alternatiboetan sinesten dugunok, gutxienekoak ezarri eta elkarren artean landuz, esperientzia berriak jorratzea, eragileen arteko harremanak saretzea eta lantzen ari diren alternatibak erakustea. Eredu kapitalistaren kontraesanak topatu eta uzten duen zirrikituetan teoriatik egingarriak, gauzagarriak diren praktiketara alternatibak eramatea meritu handia du. Eta hortxe erakutsi dugu gai eta alor ezberdinetan eragile anitzek jorratzen ari diren alternatibak: energia alorrean, elikadura subirautzan, finantza etikoak, bizitza jasangarritasuna, genero ikuspegia, sindikalgintza, hirigintza...**

**Egun bateko arrakastaz gain oso beharrezkoa da perspektiban izatea makina herrialdetan antzeko alternatibak lantzen ari direla, proiektu eraldatzaileen erakusgarri. Hondar aleak gehitzen doaz eta han eta hemendik ugaritzen ari dira ekimenak, alegia geroz eta jende gehiago biltzen da beste eredu baten aldeko dinamikan. Orain balorazioa patxadaz egiteko garaia da, beti ere zer hausnartu eta indartu egongo da holako dinamikak geroz eta arrakastatsuagoak izan daitezen. Eguna borobila izan zedin atzeko eta aurreko lanetan jardun zutenoi, zorionak.**






**Milaka lagunek hartu zuten parte urriaren 24an Bilbon Alternatiben Herria ekimenean, bestelako eredu bat posible dela frogatuz**

# IZUGARRIA IZAN ZEN

**B**ilbo. 2015eko urriaren 24a. Goizeko 07:00ak jo berriak. Areatzan kokatutako Karpa Nagusian azken hilabete luzeetan Alternatiben Herria ekimena antolatzen aritu diren lagunak elkartu dira. Elkar agurtu, azken orduko gauzak aipatu eta norbera bere zereginetara joan da. Bilbo esnatzen ari da, baina Alternatiben Herriak ez du lorik egin. Bezperatik hasi ziren ekimena garatu ahal izateko beharrezkoak ziren azpiegitura lanak. Are eta gehiago; batek baino gehiagok gau osoa igaro behar izan du E egunerako dena prest egon zedin. Hilabetetako lanak bere fruituak emateko ordua heldu da. Horregatik, agerikoa den bezala, nerbioak pil-pilean daude.

Urriak 24. Gaueko hamabiak jo berriak. Beraz, teknikoki, urriak 25. Musika amaitu da, itzali dira fokuak eta jendea apurka-apurka egun osoan zehar bete duen Karpa Nagusia husten ari da. Goizean goizetik martxan egon arren ez da inolako nekerik sumatzen Alternatiben Herria ekimena bultzatu duten lagun horien aurpegietan. Poza, irribarreak eta alaitasun keinuak bakarrik ikusten dira. Ez da harritzekoa. Amaitu berri den Alternatiben Herriaren arrakasta izugarria izan da. Milaka eta milaka lagun elkartu dira, antolakuntza aldetik dena primeran joan da, eta jarritako helburu nagusia aise bete da: bestelako eredu sozial, politiko eta ekonomiko bat lortzeko Euskal Herrian dauden alternatibak kalera ateratzea, guztien artean sareak eraiki eta sistema justu eta bidezkoago bat lortzeko bidean urratsak emateko.

### ELA ALTERNATIBEN HERRIAN

Asko izan dira Alternatiben Herria ekimenaren antolaketan buru-belarri aritu diren ELAko militanteak. Eta, gainera, egun osoan zehar ELAk protagonismo handia izan zuen. Izan ere, gure sindikatuak ere egungo sistemaren aurrean lantzen ari den alternatibak plazaratu nahi izan zituen. Gauzak honela, goizeko 10:30tan Bilborock aretoan Adolfo Muñoz idazkari nagusiak *Hemen lan eta bizi. Berton erabaki* hitzaldian parte hartu zuen; bertan Lan Harremanen eta Gizarte Babesaren Euskal Esparruaren inguruan hausnartu zuen Muñozek.

Arratsaldean, bazkaria eta gero, nazioarteko arduradun Laura Gonzalez de Txabarrik TTIP hitzarmenak Euskal Herriko langile-klasearentzat izango dituen ondorio kaltegarriak izan zituen hizpide, Europa sozialaren eta egun negoziatzen ari diren nazioarteko merkataritza itun ezberdinen inguruan antolatu zen eztabaidan. Bitartean, negoziazio kolektiboaren arduradun Joseba Villarrealek prekarietatearen inguruko mahai-inguruan aritu zen. Villarrealek argi eta garbi azaldu zituen arazo larri honi aurre egiteko ELAk dituen egitasmoak eta daraman borroka. Gainera, ELAk zein Manu Robles-Arangiz Fundazioak postu bana izan zuten Areatzan eta Plaza Barrian.

Denborak aurrera egingo du, memoriak lausotuko dira, baina urriaren 24an Bilbon izan ziren guztien oroimenetan egun horren arrastoa handia izango da. **Izugarria izan zen.**

## TU AYUDA SIGUE SIENDO IMPRESCINDIBLE

**Cualquiera que estuviera el sábado 24 de octubre en Bilbao pudo comprobar el enorme trabajo organizativo necesario para celebrar una iniciativa como *Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternativas*. Un enorme despliegue, tanto humano como material. Sin la ayuda de toda esa gente que ha trabajado en la organización o que ha contribuido con su aportación económica, este proyecto no hubiera sido posible. No obstante, *Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternativas* sigue necesitando la ayuda de todos y todas. Todavía quedan por conseguir más de 3.000 euros en la campaña de financiación en red que la iniciativa puso en marcha en la plataforma Goteo. Por lo tanto, quien quiera contribuir económicamente todavía está a tiempo en la página web:**



**https://goteo.org/project/alternatiben-herria**

# UN DÍA PARA EL RECUERDO







Fueron miles y miles las personas que tomaron parte en las diferentes actividades programadas: charlas, mesas redondas, cine forums, talleres, documentales, exposiciones, ferias... La gran asistencia de público que tuvieron todos los actos es una demostración del enorme interés que ha generado en gran parte de la sociedad esta iniciativa. La variedad de temas que se trataron, además, evidencia el gran trabajo que se viene desarrollando para lograr alternativas al actual modelo social, económico y político.







Economía social, comercio, finanzas, relaciones laborales, agricultura, autogestión, consumo, modelos energéticos, medioambiente, diversidad sexual, precariedad, soberanía alimentaria, educación, cultura, soberanía, democracia, integración, derechos humanos, feminismo, derechos lingüísticos, vivienda, monedas locales... Fueron muchos los temas que se trataron durante *Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternativas*. Temas todos ellos en los que, afortunadamente, se están trabajando alternativas en Euskal Herria. Otro mundo no solo es necesario, también es posible.


















También hubo ocasión de comer y tomar un trago durante todo el día. Al mediodía se sirvieron más de 400 menús en la Carpa Central –se acabaron todos los tickets–, y de la mano de EHNE-Bizkaia y Ondarroako Ituna se pudieron degustar sabrosos pinchos de pollo y sardina, respectivamente. También hubo una feria de la cerveza, en la que participaron siete productores de Euskal Herria. Además, durante todo el día se pudo tomar un refresco, una cerveza o un café en la barra situada en la Carpa Central.










Egun osoan zehar festa-giroa protagonista izan zen Bilboko Areatzan. Musika eta kale-animazioa ez ziren falta izan. Eta, amaierako jaialdiari buruz, zer esan! Kaxianoren Alabak musika taldeak erromeria itzela eskaini zuen. Bere musika eta erritmo alaiekin Karpa Nagusian bildutako jendetza dantzan eta saltoka jartzea lortu zuten. Izan ere, ekimenak helburu hori ere bazuen: bestelako eredu sozial eta ekonomiko bat lortzeak eredu alaiago bat lortzea suposatuko duela erakustea.





Bestelako eredu bat lortzeko bidean haurrak eta gazteak ezinbesteko oinarri bat dira. Horregatik, etxeko txikienek ere protagonismo berezia izan zuten Alternatiben Herrian. Helburu hori lortu asmoz haur eta gazteentzako prestatutako ekintzak egon ziren. Izan ere, ezin dugu ahaztu eurak ere sistema bidegabe honen biktima direla.

**Tras tres años y medio de lucha sindical, la empresa se ha visto obligada a readmitir a las y los despedidos**

# LOS/AS TRABAJADORES/AS DE LAMINACIONES ARREGUI SE REINCORPORAN AL TRABAJO



**En la imagen, varios de los trabajadores que se incorporaron el 26 de octubre a su puesto de trabajo en Laminaciones Arregui.**

El 26 de octubre se reincorporaron al trabajo una cincuentena de los trabajadores/as despedidos hace tres años y medio por la dirección de Laminaciones Arregui, en lo que ha constituido un caso claro de ataque a los derechos fundamentales y la libertad sindical –corroborado por los jueces–. De este modo, se puso fin a la ejemplar lucha mantenida por un colectivo de trabajadores/as que a principios de 2012, justo al día siguiente de que el comité convocara una huelga en la empresa, fueron despedidos/as, en un claro ataque a la libertad sindical.

Desde el primer momento la mayoría de los trabajadores/as se opusieron a un plan de reestructuración injustificado e impuesto por parte de la empresa, y mientras luchaban en la calle por el empleo, emprendieron la lucha jurídica en los tribunales.

La primera sentencia firme favorable a los trabajadores/as llegó en octubre de 2014; el Tribunal Supremo concluyó que los 174 despidos decretados eran nulos. Sin embargo, la empresa no desistió, y a la vez que readmitía a las personas despedidas, planteó un nuevo expediente de regulación. Los trabajadores/as respondieron de manera contundente a ese nuevo ataque, y los jueces han vuelto a darles la razón. Esta última sentencia, que implica la readmisión de los despedidos/as, es la que se ejecutó el 26 de octubre.

Deiane Arrieta, responsable del sindicato, se muestra satisfecha por una sentencia que hace justicia. “La lucha de la gente de Laminaciones Arregui, antigua Celta Atlantic, muestra que defender los derechos laborales con convicción y honestidad merece la pena. La empresa se ha empeñado una y otra vez en atacar los derechos fundamentales y la libertad sindical, aún cuando los tribunales se habían manifestado en contra de ello. Y los trabajadores/as han peleado por su empleo y un trabajo digno”.

Arrieta advierte, sin embargo, que el sindicato seguirá vigilante ante cualquier intento de juego sucio por parte de la dirección. “Estamos expectantes, pero también abiertos al diálogo y a la negociación. Creemos que la empresa debería haber aprendido en este tiempo que no puede actuar de manera unilateral, a la brava y saltarse la ley”.

Recordar, finalmente, que Laminaciones Arregui presentó en mayo un ERTE que ha sido recurrido por el sindicato.

## LABURREAN / BREVES




### • Aernnovak kaleratze kolektiboa iragarri du

Aernnova multinazionaleko zuzendaritzak Berantevillan duen lantokian kaleratze kolektiboa egiteko asmoa duela iragarri zien langileen ordezkariei urriaren 28an. ELAk gogor salatu nahi du erabakia, enpresaren datu ekonomikoek agerian uzten dutelako Berantevillako lantokia guztiz bideragarria dela; enpresak etekinak ematen ditu, ez du diru-arazorik, eta produkzioari dagokionez ere emaitzak onak dira, ez dagoelarik ekoizpen-arazorik. Langileen ordezkariek aurreratu dutenez, kaleratzeak 130 eta 150 bitartean izango lirateke.

Arabako Foru Aldundiari inplikazioa eskatu asmoz langileek bilkura egin zuten urriaren 28an Aldundiaren egoitzaren aurrean. Izan ere, ezin da ahaztu administrazio publikoek –bai Arabako Foru Aldundiak eta bai Eusko Jaurlaritzak– diru publiko ugari bideratu diotela multinazional honi.

### • Akordioa Emica Bombas enpresan, hiru hilabetetako grebaren ostean

Urriaren 22an akordioa sinatu zen Emica Bombasen. Akordioarekin hiru hilabete iraun duen gatazka modu ezin hobean amaitu da: langileek enpresako lehen hitzarmen kolektiboa sinatu dute. ELAk, enpresan ordezkaritza duen sindikatu bakarrak, langileek eraman duten borroka txalotu nahi du.

Industria eta Eraikuntzako arduradun Aitor Garrigak azpimarratzen duenez, “Emica Bombaseko langileek beste behin erakutsi digute antolakuntza, militantzia eta borroka uztartzen direnean hitzarmen onak lortu daitezkeela. Akordioak langileak lan-erreformaren aurka blindatzen ditu, besteak beste. Ultraaktibitatea mugagabea izango da, eta enpresari lan-baldintzak alde bakarreko erabakiz aldatzeko aukerak galarazi zaizkio. Soldatei dagokienez, urtengo igoera %2 izango da: 2016an %1,10; 2017an %1,20 eta 2018an %1,25. Bestalde, plusak nominako kontzeptu estrukturaletan integratuko dira, eta lanaldia 16 ordu laburtu da”.




**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

**Franqueo concertado nº 08/207**